LEHEN MUGIKORRAREKIN FAMILIEK IZATEN DABEZAN OHIKO 7 AKATS

begoñazpi ikastola

Eskutik | Teknologia eta Sare Sozialak

1. AKATSA

MUGIKORRA INONGO ARAURIK EZARRI GABE EMOTEA

Ordutegi, aplikazio edota erabilera arduratsuaren muga argirik gabeko smartphonea emoteak, hainbat gatazka eta kontrolik eza eragingo dau.

2. AKATSA

MUGIKORRA ERABILTZEN EZ LAGUNTZEA

Behin gailua emonda, adingabeak ”Badaki erabiltzen” pentsatzea, akatsa da. Gainbegiratzea eta alkarrizketa ezinbestekoak izango dira.

3. AKATSA

GEHIEGIZKO KONTROLA ETA MUTURREKO ZAINTZA EGITEA

Ume edo nerabeak egiten dauan guztia zelatatzeak mesfidantza sortu daike baita alkarrizketa ixtea be. Hobe izango da laguntzea etengabe zaintzea baino.



4. AKATSA

ARRISKU DIGITALEI BURUZ EZ HITZ EGITEA

Sexting, grooming edo ziberjazarpenari buruzko ezjakintasun eta alkarrizketa ezak, euren burua babesteko tresna edota baliabiderik gabe itziko dauaz adingabeak.



5. AKATSA

SEME-ALABAK ADIN BEREKO BESTE BATZUEKIN ALDERATZEA

Adingabe bakoitzak heldutasun-maila desbardina dau. Semeak edo alabak dauan mugikorraren erabilera beste haur batzuek dabenarekin alderatzeak, beharrezkoa ez dan presioa eta frustazioa eragin daike.



6. AKATSA

PANTAILAREN AURREAN EMONDAKO DENBORA GITXIESTEA

Mugikorraren gehiegizko erabilera ez kontrolatzeak loari, ikasketari eta gizarte-harremanei eragin ahal deutse. Gakoa, muga osasungarriak izango dira, funtsezkoak dira eta.



7. AKATSA

MUGIKORRA HEZKUNTZA-AUKERA DALA AHAZTEA

Smartphonea denbora-pasa edo entretenimendu moduan baino ez ikusteak, erantzukizuna, pribatutasuna eta trebetasun digital kritikoak irakasteko aukera galaraziko dau.



HAUSNARTU

AKATS HONEETATIK, ZEINTZUK EGITEN DOGUZ ETXEAN ETA ZELAN ZUZENDU DAIKEGUZ?

Lehen mugikorra emotea, hezteko modua emotea be bada: laguntza emotea, mugak jartzea eta alkarrizketa izango dira adingabeek interneten seguru nabigatzeko gidarik onena.

Eskutik | Teknologia eta Sare Zozialak